



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko apirilaren 20a

42. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Nafarroako 2008ko kontu orokorren azterketari buruzko txostena, Comptos Ganberak egina. (2. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Nafarroako 2008ko kontu orokorren azterketari buruzko txostena, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 8an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako 2008ko kontu orokorren azterketari buruz Nafarroako Comptos Ganberak emandako txostena ikusita, hona ERABAKIA:

1. Txosten horren jakitun dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2010eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako 2008ko kontu orokorren azterketari buruzko txostena, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

Egindakoaren laburpena (3.or.).

I. Sarrera (4.or.).

II. Foru sektore publikoa (4.or.).

II.1 Egitura organikoa, erakunde publikoak eta bestelako menpeko enteak (4.or.).

II.2 Nafarroako Aurrekontu Orokorrak (7.or.).

II.3 Araudia (7.or.).

III. Fiskalizazioaren helburua (7.or.).

IV. Fiskalizazioaren norainokoa (7.or.).

V. Iritzia (8.or.).

V.1 Urteko kontuak (8.or.).

V.2 Legezketasuna (8.or.).

V.3 Egoera ekonomiko eta finantzarioa (8.or.).

V.4 Gomendioen betetzea (10.or.).

VI. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen urteko kontuak (10.or.).

VI.1. 2008ko aurrekontuaren likidazioa (10.or.).

VI.2. 2008ko ekitaldiko aurrekontuaren emaitza (11.or.).

VI.3. 2008ko abenduaren 31ko egoera-balantzea (11.or.).

VI.4. Emaitzen kontua, 2008ko abenduaren 31n (13.or.).

VI.5. Diruzaintza-gerakina, 2008ko abenduaren 31n. (15.or.).

VII. Erregulartasunari buruzko auditoriaren ondorioak (16.or.).

VII.1 Aurrekontu Orokorrak eta Nafarroako Kontu Orokorrak (16.or.).

VII.2 Aurrekontuaren likidazioa (16.or.).

VII.3. Langileria gastuak (17.or.).

VII.4 Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea (18.or.).

VII.5 Transferentzia arruntengatiko gastuak eta kapitaleko transferenziengatiko gastuak (20.or.).

VII.6 Inbertsioak (22.or.).

VII.7 Zorpetzea (24.or.).

VII.8 Finantza-aktiboak (24.or.).

VIII. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren sozietate publikoak (25.or.).

IX. Gomendioak (26.or.).

IX.1. Aurrekontuak eta kontu orokorrak (26.or.).

IX.2. Kontabilitatearen kudeaketa (26.or.).

IX.3. Aurrekontuetako gastuak (26.or.).

IX.4. Ibilgetua eta Ondasunen eta Eskubideen Inbentario Orokorra (27.or.).

IX.5. Sozietate publikoak (27.or.).

Nafarroako Gobernuako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasun kontseilariak aurkeztutako alegazioak (27.or.).

Aurkeztutako alegazioei Comptos Ganberak emandako erantzuna (28.or.).

EGINDAKOAREN LABURPENA

Nafarroako Comptos Ganberak Nafarroako 2008ko ekitaldiko Kontu Orokorren erregulartasunari (finantzarioa eta legezketasunaren gainekoa) buruzko auditoria egin du. Auditorian, honakoak aztertzen dira: 2008ko ekitaldiko kontuak, legezketasunaren betetzea, Foru Ogasunaren egoera ekonomiko eta finantzarioa eta, azkenik, aurreko fiskalizazio batzuetan eginiko gomendioen betetzea.

Nafarroako Gobernuaren eta haren erakunde autonomoen kontuei dagokienez, txostenak dio gastuek 4.400 milioi euro egin zituztela, aurreko urtean baino % 2,5 gehiago. Gastuen kapitulu garrantzitsuenak transferentzia arruntak (1.600 milioi euro), langileak (1.100 milioi euro) eta kapital-transferentziak dira (670 milioi euro). Nafarroako Gobernuaren gastuak zein eginkizunetarako erabiltzen diren aztertuta, ondorioztatzen da osasunak eta administrazio publikoentzako transferentziek bakoitzak % 21 egiten dutela. Azpiegiturek, berriz, guztizko gastuaren % 7 egiten dute.

Diru-sarrerei dagokienez, guztira 4.100 milioi egin zuten; horrek esan nahi du 2007ko datuen aldean % 3ko jaitsiera egon dela, funtsean zergen diru-bilketan izandako beherakadarengatik. Diru-sarrerara guztietatik, 2.100 zuzeneko zergei dagozkie eta 1.542, berriz, zeharkako zergei.

Comptos Ganberaren txostenak dio oro har kontuek zehatz islatzen dutela Foru Ogasunaren egoera ekonomiko eta finantzarioa. Hala eta guztiz ere, ibilgetuari buruzko bi salbuespen aipatzen dira. Haien saldoan ez dira Administrazioaren ondasunak sartzen, ez eta pentsioen sistematik heldu diren betebeharrak ere (kontingentzia gisa erregistratu gabeak).

Comptos Ganberak adierazi du Foru Administrazioaren jardura finantzarioa, oro har, legezketasun printzipioaren arabera dela.

Egoera ekonomikoari dagokionez, 2007ko datuekin alderatuta, zorra 635 milioikoa izatetik 815 milioikoa izatera igo da. Ekitaldia 215 milioiko saldo negatibo batekin bukatu da; diruzaintzako

gerakina, berriz, 128 milioikoa da. Diru-sarreraren beherapenak berekin ekarri du, halaber, aurrezki gordinak (gastu arruntan eta diru-sarrerara arruntan arteko aldea) behera egitea, hain zuzen ere 1.150 milioikoa izatetik ia erdira.

Txostenak enpresa publikoei buruzko analisi bat ere eskaintzen du. 2008an, 39 sozietate zeuden zeinetan Nafarroako Gobernuak gehiengoak kobratzen baitzuen. Enpresa guztietan auditoria egin da, eta haietako 25etan iritzia aldekoa da; beste 10etan, berriz, salbuespenak daude. Enpresa publikoen zorra 162 milioi eurokoa da.

Honakoak dira erregulartasun-auditoriatik aterako ondorioetako batzuk:

“Nafarroako komunikazioen ardatz estrategikoa eta lurralde-intereseko beste errepide batzuetako jarduerak azkartzeko planeko” inbertsioak, 2008. ekitaldirako aurreikusitakoa, ez ziren hasierako aurrekontuan sartu.

Irregularitasun batzuk atzeman dira bisita pasatzeko gardien ordainsarrietan.

Egiaztatu da berrikusitako bost enkarguetako lautan, Administrazioak, bitartekoen falta argudiatuta, bere elkarte publikoei lan batzuk esleitu zituztela, eta lan horiei aurre egiteko, berriz, sozietateek askotan hirugarrenekin kontratatu behar izan zituzten.

Comptos Ganberak gomendio batzuk bildu ditu. Horietatik, honakoak azpimarratu nahi ditugu:

- Hirugarrenen kontabilitate laguntzailearen (HKL) kontabilitate orokorrekin koordinatzea eta integratzea.

- Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa Sozietatea sortzeari buruzko Foru Legea onestearekin hasitako prozesuan aurrea egitea, enpresen sektore publikoa arrazionalizatzeko, betiere enpresa publikoek zerbitzua ematerakoan efizientzia, ekonomia eta eraginkortasun printzipioak aintzat hartuz.

- Sozietate publikoei egin ditzaketan lanak esleitzea, eta esleitutako zerbitzuen kostua baloratzea, baldin eta enkargua betetzeko, kasuko sozietate publikoak, neurri handi batean, hirugarrenek prestazioak exekutatzeko behar badu.

- Komunikazioen ardatz estrategikoa azkartzeko planean aurreikusitako obrak egiteko behar diren kredituak sartzeko aurrekontuetan.

- Aurrekontu-programa guztietarako, aurreikusitako helburuak neurtzeko adierazleak definitzea.

- Kontabilitate sistema osatzea, zerbitzu publikoen kostua zehazteko informazioa eman dezana.

- Finantzaketa atxikita duten gastu guztien kontabilitate-jarraipena eta -kontrola egitea gastu-proiektuen bitartez.

- Foru-funtzionarioen eskubide pasiboen sistematik dakartzan betebeharrak aktuarialak neurtu eta finantzen egoera-orrietan erregistratzea.

- Nafarroako Foru Komunitateko ondasunen eta eskubideen inbentario oso bat egitea –inbentario hori Kontabilitate Publikoari buruzko Plan Orokorren irizpideekin baloratuko da–, eta ibilgetuaren kontabilitate-datuak inbentarioko datuekin berdinkatzea.

I. SARRERA

Nafarroako Comptos Ganberak Nafarroako 2008ko ekitaldiko Kontu Orokorren erregularatasuna (finantzarioa eta legezketasunaren gainekoa) fiskalizatu du. Fiskalizazio hori egin da Comptos Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legea betetzeko. Izan ere, lege horretan ezartzen da Nafarroako Kontu Orokorren azterketa eta zentsura Nafarroako Parlamentuak Comptos Ganberari igorri eta hurrengo hiru hilabeteetan eginen dela.

2008ko Nafarroako Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua Nafarroako Gobernuaren 2009ko irailaren 14ko erabakiaren bidez onetsi zen, eta 2009ko irailaren 23an sartu zen Comptos Ganberan.

Lan hau sartu zen Comptos Ganberak 2009rako onetsi zuen fiskalizazio-programan, eta auditoriako bost teknikarik, praktikatan ari zen unibertsitate-ikasle batek eta auditore batek osaturiko taldeak egin zuen, betiere Comptos Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboaren laguntzarekin.

Zelaiko lana 2009ko uztailetik azarora bitartean egin zen.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari, haren erakunde autonomoetako eta haren sozietate publikoetako langileei, lan hau egiteko emandako laguntzaren gatik.

II. FORU SEKTORE PUBLIKOA

II.1 EGITURA ORGANIKOA, ERAKUNDE PUBLIKOAK ETA BESTELAKO MENPEKO ENTEAK.

Foru sektore publikoa honakoek osatzen dute, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 13/2007 Foru Legearen eraginotarako:

- Foru Komunitateko Administrazioa eta hari atxikitako erakunde autonomoak.

- Nafarroako Foru Komunitatearen sozietate publikoak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren nahiz haren erakunde publikoen zuzeneko edo zeharkako partaidetza dutenak eta Nafarroako Gobernuak sortuak direnak edo Nafarroako Gobernuak publiko gisa berariaz deklaratu dituenak.


- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta haren erakunde publikoetako fundazio publikoak.

- Nafarroako Parlamentua eta haren menpeko organoak; hau da, Comptos Ganbera eta Arartekoa.

- Nafarroako Kontseilua eta Nafarroako Ikusentzunezkoen Kontseilua.


Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa 12 departamentutan egituratuta dago.

Hauze zen foru sektore publikoaren 2008ko irudikapen grafikoa:



ERAKUNDE AUTONOMOAK
NAPI: Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua
NZO: Nafarroako Zerga Ogasuna
NLOI: Nafarroako Lan Osasunaren Institutua
O-NOZ: Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua
EVENA: Nafarroako Mahastizaintza eta Enologi Zentroa
NEZ: Nafarroako Enplegu Zerbitzua
NMA: Nafarroako Mendekotasun Agentzia
NBI: Nafarroako Berritasunerako Institutua.
NGI: Nafarroako Gazteriaren Institutua
NKI: Nafarroako Kirolaren Institutua

* Sozietate publikoak hurrengo orrialdean agertzen dira.



* KS:kapital soziala
Euroak, milakotan)
* Data: 2008-12-31

II.2 NAFARROAKO AURREKONTU OROKORRAK.

Nafarroako Aurrekontu Orokorrak foru sektore publikoa osatzen duten entitateen aurrekontuek osatuta daude.

Aurrekontuak programen arabera prestatzen dira eta programak, berriz aurrekontu-proiektutan xehakutzen dira. 2008ko Aurrekontu Orokorrak 97 programa zeuzkan guztira, 12 departamenturi zegozkienak. Departamentu bakoitzeko edo haien zuzendaritza nagusi bakoitzeko programaren barruan atxikitako erakunde autonomoen aurrekontua jasota dago.

II.3 ARAUDIA

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari 2008an aplikatzekoa zaion araudia honako lege-eta arau-xedapenek osatzen dute, besteak beste:

Urtarrilaren 24ko 1/2008 Foru Legea, 2008ko Ekitaldirako Nafarroako Aurrekontuei buruzkoa.

Apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.

Apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legea, Nafarroako Ondareari buruzkoa.

Abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra, Tributuei buruzkoa.

Abenduaren 26ko 28/1990 Foru Legea, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa onesteari buruzkoa.

Abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzkoa.

Abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzkoa.

Martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzkoa.

Azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea, Dirulaguntzei buruzkoa.

6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.

Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duena, bai eta haiek garatzeko xedapenak ere.

Abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea, Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzkoa.

Abenduaren 29ko 21/2005 Foru Legea, Politika Publikoak eta Zerbitzu Publikoen Kalitatea Ebaluatzeari buruzkoa.

1994ko maiatzaren 6ko Agindua, Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onesten duena.

III. FISKALIZAZIOAREN HELBURUA

Erregularitasunari buruzko fiskalizazioaren helburua da gure iritzia ematea hurrengo gaiari buruz:

a) Ea 2008ko ekitaldiari buruzko Nafarroako Kontu Orokorrak ondarearen eta egoera ekonomikoaren, aurrekontuko likidazioaren eta 2008ko abenduaren 31ko emaitza ekonomikoaren irudi zehatza agertzen duten, aplikatzekoak diren kontabilitate-printzipio eta -arauen arabera.

b) Ea lege indardunak bete diren 2008an izandako jarduera finantzarioan.

c) Foru Ogasunaren 2008ko ekitaldiko egoera ekonomiko eta finantzarioa.

d) Ea aurreko fiskalizazioetan eginiko gomen-dioak bete diren.

IV. FISKALIZAZIOAREN NORAINOKOA

Nafarroako Kontu Orokorrak foru sektore publikoa osatzen duten enteen kontuek osatuta daude.

Erregularitasunari buruzko fiskalizazioak honakoak hartu zituen: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen 2008ko ekitaldiko urteko kontuak. Haietan, honakoak ageri dira:

– aurrekontuaren likidazioa

– Ekonomia eta Ogasun Departamentuak zehaztu zituen 65 aurrekontu-programetako emaitzen balantze bat eta kudeaketari buruzko txosten bat.

– egoerari buruzko balantzea

– emaitza ekonomikoari eta ondarearen arloko emaitzari buruzko kontua

– oroitidazki orokor bat, aurreko egoera-orrietan jasotako informazioa zabaltzen eta iruzkintzen duena.

Fiskalizazioa barne kontrolaren analisisia eta aurrekontuko gastuen eta diru-sarreraren eta udaleko balantzeko ondare-kontuen lagin baten azterketa eginez; horretarako, hautaketa-probak egin eta lanaren helburuak betetzeko beharrezkotzat jo diren auditoria-teknikak baliatu dira.

Lana egin da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolleko Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak

onetsiriko fiskalizazio printzipioei eta araei jarraituz, zeinak Comptos Ganberak bere fiskalizazio-eskuliburuan garatu baititu.

Comptos Ganberak, gainera, Nafarroako Parlamentuaren eta haren menpeko organoen 2008ko kontuak, Nafarroako Kontseiluaren kontuak eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren kontuak fiskalizatu zituen.

Ez dugu auditoriarik egin kanpoko profesionalen eginiko kontuen auditoria aurkeztu zuten sozietate eta fundazio publikoen 2008ko ekitaldiko urteko kontuei buruz.

V. IRITZIA

Erregularutasuna dela eta egindako azterketaren ondorio gisa, honako iritzi hau adierazi behar dugu:

V.1 URTEKO KONTUAK

Ibilgetuaren saldoak ez ditu bere baitan hartzen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen jabetzapeko ondasun guztiak, ez du jasotzen balioa galtzen duten elementuen amortizazioa, eta ez dago oinarrituta ondasunen eta eskubideen inbentarioan. Ez dago Nafarroako Foru Komunitateko Administra-

zioaren jabetzapeko ondasun guztien inbentario baloratu eta osorik.

Ez dira jaso Administrazioako funtzionarioen pentsio-sistemak sorrarazten dituen betebeharrak aktuariaren ondorioz dauden gorabeherak.

Aurreko salbuespenak gorabehera, 2008ko ekitaldiko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren urteko kontuek irudi zehatza agertzen dute, muntadunak diren alderdi guztietan, 2008ko abenduaren 31ko ondareari, 2008ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioari eta emaitza ekonomiko eta ondarezkoari buruz. Beharrezkoa eta nahikoa den informazioa biltzen dute hori egokiro interpretatu eta ulertzeko, aplikatzekoak diren kontabilitate publikoko printzipio eta araei jarraituz.

V.2 LEGEZKOTASUNA

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen jarduera finantzarioa 2008an, oro har, legezketasun printzipioaren arabera izan da.

V.3 EGOERA EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA

Hona Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen egoera finantzarioari buruzko adierazle batzuk:

	2008	2007
Diru-sarrera arruntak	3.849,62	4.192,05
Funtzionamendu-gastuak	3.300,09	3.042,42
Aurrezki gordina	549,54	1.149,63
Finantza-karga	30,79	62,79
Aurrezpen garbia	518,74	1.088,84
Inbertsioak eta bestelako kapital gastuak	977,37	988,89
Kapital diru-sarrera	133,97	80,51
Kapital defizita	843,4	908,38
Ekitaldiko aurrekontuaren saldoa.	-215,56	0,65
Aurrekontuaren saldo doitua	8,56	287,59
Diruzaintza-gerakina, guztira	128,25	331,90
Zorpetze-maila	% 0,8	% 1,50
Zorpetze-muga	% 14,27	% 27,42
Zor bizia	815,51	635,29

2008ko abenduaren 31ko aurrezki gordina 549,54 milioi eurokoa zen; alegia, 2007an baino % 52 gutxiago. Aldaketa hori azal daiteke funtsean zergen bidez diru gutxiago sartu delako, langileen arloko gastuek gora egin dutelako, eta ondasun arruntak eta zerbitzuak erosteko gastuek ere gora egin dutelako.

2008ko abenduaren 31ko kapitaleko defizita 843,4 milioi eurokoa izan zen, 2007an baino ehuneko 7 gutxiago. Horren arrazoi nagusia da Inbertsioak Azkartzeko Planerako SPRIN SA Sozietate Publikotik jasotako kapital transferentziak handiagoak izan direla.

2008ko aurrekontuaren likidaziotik, 215,56 milioi euroko saldo negatiboa lortu zen. Horri 2008ko gastuak gehituz gero, aurreko ekitaldietako diruzaintzako gerakinarekin finantzatutakoak, emaitza 8,56 milioi euroko aurrekontu-saldo doitua da.

Zorpetze maila, soilik 2008. urtean kontabilizatutako finantza-zama aintzat hartuta, diru-sarrera arrunten % 0,8 izan zen. Hala eta guztiz ere, zorraren amortizazioa -60 milioi eurokoa da eta zor publikoa jaulkiz konpentsatu da- kontuan har-

tuz gero, zorpetze-maila ehuneko 2,36koa izanen da.

Zorpetze-mugak behera egin du batez ere aurrezki gordinaren behera etortzearen ondorioz, eta, horrenbestez, zorpetzeko ahalmena ere gutxitu da.

2008ko ekitaldirako aurrekontu-egonkortasuna dela-eta ezarri zen helburua erregioko BPGaren ehuneko 0,75ekoa da.

Ulertzen da aurrekontu-egonkortasuna oreka edo superabit egoera bat dela, finantziatorako ahalmenari dagokiona, betiere ahalmen hori kalkulatu administrazio publikoen sektorerako Europako Nazioetako eta Erregioetako Kontuen Sistemari (SEC-95) ezarritako irizpideen arabera.

2008ko ekitaldian, Nafarroak, EAKNk eginiko kalkularen arabera, 877 milioi euroko finantziario premiak izan zituen, erregioko BPGaren % 4,70 egiten dutenak. Horrenbestez, ez da aurrekontu-egonkortasunaren helburua bete.

Finantziario premiak kalkulatu ziren aurrekontuko saldo ez finantzarioari honako doikuntzan eginez:

	Zenbatekoa (euroak, milioitan)
I. AURREKONTUKO SALDO EZ FINANTZARIOA	-321
- Administrazio orokorrarena eta haren erakunde autonomoena	-324
- Nafarroako Parlamentuarena, Comptos Ganberarena eta Arartekoarena	3
Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluarena eta Nafarroako Kontseiluarena	
II. AURREKONTUKO SALDOAREKIN EGINIKO DOITZEAK	-459
1. Hitzarmen Ekonomikorako ekarpena	-278
Administrazio Orokorraren eta Gizarte Segurantzaren transferentziak	11
Barneko transferentziak	-4
2. Europako funtsetako transferentziak	-5
3. Diru-bilketa ez segurua	-120
4. Kapital ekarpenak.	-58
5. Aurrekontuari aplikatzeko dauden eragiketak	-5
OTRAS UNIDADES CONSIDERADAS COMO AA.PPIII.	-97
ADMINISTRATIO PUBLIKO GISA HARTZEN DIREN BESTE UNITATE	
IV. FINANTZATZEKO GAITASUNA EDO BEHARRA (I.etik III.era)	-877

V.4 GOMENDIOEN BETETZEA

Egiaztatu dugu aurreko fiskalizazioetan emani-ko hurrengo gomendioak bete egiten direla:

- Aurrekontuetan eta oroitidazkian aurrekontu-programei buruz dagoen informazioa homogeneizatu da. Programa batzuetarako, aurreikusitako helburuak neurtzeko adierazleak definitu dira, eta haien betetze-maila aztertu da.

- Aurrekontuen likidazioari buruzko egoera-orrian, likidatutako eskubideen kobrantzari eta aitorturiko betebeharren ordainketari buruzko informazioa sartu da.

- Oroitidazkian, kobratzeko dauden eskubideei eta itxitako aurrekontuei dagozkien eta ordaintzeko dauden betebeharrei buruzko informazioa eman da.

VI. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN URTEKO KONTUAK.

Ondoren, Foru Komunitateko Administrazioaren urteko kontuak osatzen dituzten kontabilitateko egoera-orri batzuk ematen ditugu.

VI.1. 2008ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA**2008ko gastuen aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera**

Kapitulu ekonomikoa	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Bateratua	Burutua	Guzt. g/ %	(eurotan)
						Betetakoa /bateratua (ehunekotan)
Langileria gastuak	1.080.701.000	46.786.124	1.127.487.124	1.107.065.260	25,15	98,19
Ondasun arruntetako gastuak	498.960.004	22.649.217	521.609.221	496.781.180	11,28	95,24
Finantza-gastuak	28.678.909	1.990.934	30.669.843	30.548.215	0,69	99,60
Transferentzia arruntak	1.625.101.948	130.182.996	1755.284.944	1.696.240.088	38,53	96,64
Inbertsio errealak	284.550.649	134.252.087	418.802.736	305.988.481	6,95	73,06
Kapital-transferentziak	749.015.518	10.101.333	759.116.851	671.379.146	15,25	88,44
Finantza-aktiboak	20.313.061	74.444.940	94.758.001	94.207.899	2,14	99,42
Finantza-pasiboak	7.000	244.210	251.210	245.210	0,01	97,61
Guztira	4.287.328.089	420.651.841	4.707.979.930	4.402.455.479	100	93,51

2008ko diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera

Kapitulu ekonomikoa	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Bateratua	Burutua	Guzt. g/ %	(eurotan)
						Betetakoa /bateratua (ehunekotan)
Zuzeneko zergak	2.197.281.006	5.809.000	2.203.090.006	2.100.724.640	50,17	95,35
Zeharkako zergak	1.843.046.400	850.000	1.843.896.400	1.542.697.987	36,85	83,67
Tasak, prezioak eta bestelako diru-sarrerak	91.303.490	3.714.457	95.017.947	111.981.421	2,67	117,85
Transferentzia arruntak	46.350.296	11.626.144	57.976.440	51.057.567	1,22	88,07
Ondare-diru-sarrerak	44.778.391	0	44.778.391	43.162.923	1,03	96,39
Inbertsio errealen besterentzea	23.515.190	0	23.515.190	8.092.527	0,19	34,41
Kapital-transferentziak	17.757.695	152.921.057	170.678.752	125.880.670	3,01	73,75
Finantza-aktiboak	23.295.621	227.131.184	250.426.805	22.976.369	0,55	9,17
Finantza-pasiboak		18.600.000	18.600.000	180.318.884	4,31	969,46
Guztira	4.287.328.089	420.651.842	4.707.979.931	4.186.892.988	100	88,93

VI.2. 2008ko EKITALDIKO AURREKONTUAREN EMAITZA.

(euroak, milakotan)

Kontzeptuak	Aitorturiko eskubideak	Aitorturiko betebeharrak	Zenbatekoa
1. Eragiketa arruntak	3.849.625	3.330.635	518.990
2. Kapital-eragiketak	133.973	977.368	-843.395
3. Finantza-aktiboekiko eragiketak	22.976	94.208	-71.232
I. EKITALDIKO AURREKONTUAREN EMAITZA	4.006.574	4.402.211	-395.637
II. FINANTZA-PASIBOEN ALDAKETA GARBIA	180.074	0	180.074
III. EKITALDIKO AURREKONTUAREN SALDOA			-215.563
4. Diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako betebeharrak aitortuak.			225.379
5. Ekitaldiari egotz dakizkikeen finantzaketa-desbideratze negatiboak			3.410
6. Ekitaldiari egotz dakizkikeen finantzaketa-desbideratze positiboak			4.670
IV. EKITALDIKO AURREKONTUAREN SALDO DOITUA (III + 4 + 5 - 6)			8.556

VI.3. 2008ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZEA

(eurotan)

AKTIBOA	2008ko ekitaldia	2007ko ekitaldia
A) IBILGETUA	2.244.758.312	2.178.141.829
III. Ibilgetu materialak	1.618.074.840	1.507.087.814
1. Lursailak eta eraikinak	1.043.299.024	971.043.729
2. Instalazio teknikoak eta makineria	57.321.157	53.714.576
3. Tresneria eta altzariak	302.976.443	277.915.306
4. Beste hainbat ibilgetu	214.478.216	204.414.203
V. Finantza-inbertsio iraunkorrak	626.683.472	671.054.015
1. Epe luzerako baloreen zorroa	648.189.618	600.197.691
2. Epe luzerako bestelako inbertsio eta kredituak	156.576.457	140.996.692
3. Epe luzerako eratutako fidantza eta gordailuak	25.159	25.159
4. (Hornidurak)	-178.107.762	-70.165.527
B) ZENBAIT EKITALDITAN BANATU BEHARREKO GASTUAK	141.600	0
C) AKTIBO ZIRKULATZAILEA	774.773.168	1.430.985.612
I. Izakinak	17.317.875	12.308.815
2. Lehengaiak eta beste hornigai batzuk	17.317.875	12.308.815
II. Zordunak	273.600.104	161.076.004
1. Aurrekontu-zordunak	459.390.877	312.171.183
2. Aurrekontuetatik kanpoko zordunak	232.418	71.919
3. Beste erakunde publiko batzuen konturako baliabideak administratzeagatiko zordunak	222.883	243.516
5. Bestelako zordunak	5.001.247	2.772.036
6 (Hornidurak)	-191.247.321	-154.182.649
III. Aldi baterako inbertsio finantzarioak	481.198.038	1.258.868.328
2. Epe laburrerako bestelako inbertsio eta kredituak	481.193.403	1.258.865.162
3. Epe laburrerako eratutako fidantza eta gordailuak	4.635	3.166
IV. Diruzaintza	2.657.151	-1.267.535
Guztira, orokorrean (A+B+C)	3.019.673.080	3.609.127.442

PASIBOA	2008ko ekitaldia	2007ko ekitaldia
A) FUNTS BEREKIAK	1.612.784.437	1.976.572.561
I. Ondarea	1.721.723.223	1.376.840.326
1. Ondarea	1.721.723.223	1.376.840.326
III. Aurreko ekitaldietako emaitzak	254.849.338	344.882.897
1. Aurreko ekitaldietako emaitza positiboak	254.849.338	344.882.897
IV. Ekitaldiko emaitzak	-363.788.124	254.849.338
C) EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	816.096.984	580.803.517
I. Obligazioen eta bestelako balore negoziagarrien jaulkipenak	610.351.816	550.351.816
1. Obligazioak eta bonoak	610.351.816	550.351.816
II. Epe luzeko bestelako zorrak	205.745.108	25.451.641
2. Bestelako zorrak	205.157.478	24.838.594
4. Epe luzerako jasotako fidantzak eta gordailuak	587.630	613.047
III. Akzioen gaineko ordainketa eskatu gabeak, egiteko daudenak	60,63	5.000.061
D) EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK	590.791.659	1.051.751.363
I. Obligazioen eta bestelako balore negoziagarrien jaulkipenak	0	60.101.210
1. Epe laburreko obligazioak eta bonoak	0	60.101.210
III. Hartzekodunak	590.791.659	991.650.153
1. Aurrekontuko hartzekodunak	578.561.681	977.891.276
3. Beste erakunde publiko batzuen konturako baliabideak administratzeagatiko hartzekodunak	5.492.333	6.053.175
4. Administrazio publikoak	2.750.492	3.590.799
5. Beste hartzekodunak	1.850.765	1.984.591
6. Epe laburrean jasotako fidantzak eta gordailuak	2.136.388	2.130.311
Guztira, orokorrean (A+C+D)	3.019.673.080	3.609.127.442

VI.4. EMAITZEN KONTUA, 2008ko ABENDUAREN 31n

(eurotan)		
ZOR	2008ko ekitaldia	2007ko ekitaldia
A) GASTUAK		
2. Hornidurak	179.565.786	166.072.752
b) Ekitaldiko kontsumoak	179.565.584	166.072.652
c) Kanpoko beste gastu batzuk	202	100
3. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	1.600.170.669	1.301.211.910
a) Langile-gastuak.	1.053.169.510	925.087.567
a.1) Soldatak eta ordainsariak	906.735.738	796.737.854
a.2) Gizarte-zamak	146.433.772	128.349.714
b) Gizarte-prestazioak	54.338.218	49.586.768
d) Trafiko horniduretako aldaketak	37.064.671	11.800.648
d.1) Hornigaien bariazioa eta kobraezinak diren kredituen galerak	37.064.671	11.800.648
e) Beste kudeaketa-gastu batzuk	317.105.419	233.486.028
e.1) Kanpoko zerbitzuak	317.055.830	233.461.168
e.2) Tributuak	49.589	24.860
f) Finantza-gastuak eta antzekoak	30.550.615	32.537.141
f.1) Zorrek direla eta	30.550.615	32.537.141
g) Finantza-inbertsioen probisioen aldaketa	107.942.236	48.713.758
4. Transferentziak eta dirulaguntzak	2.367.669.897	2.374.845.529
a) Transferentzia arruntak	1.696.290.751	1.665.264.21
c) Kapital-transferentziak	671.379.146	709.581.315
5. Ezohiko galerak eta gastuak	208.845.405	232.727.634
a) Ibilgetutik heldu diren galerak	0	0
c) Aparteko gastuak	191.556.410	163.696.350
d) Beste ekitaldi batzuetako gastuak eta galerak	17.288.995	69.031.285
SALDO HARTZEKODUNA (AURREZKIA)		254.849.338
ZORRAK, guztira	4.356.251.757	4.329.707.164

HARTZEKOA	2008ko ekitaldia	2007ko ekitaldia
B) DIRU-SARRERAK		
1. Ohiko kudeaketari dagozkionak	3.677.500.476	4.005.304.056
a) Zerga-sarrerak	3.660.677.030	3.989.109.490
a.1) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga	1.408.123.507	1.325.707.846
a.2) Sozietateen gaineko zerga	582.423.563	777.679.424
a.3) Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga	45.014.150	47.931.517
a.4) Ondarearen gaineko zerga	65.163.420	59.867.975
a.9) Ondare-eskualdaketen eta EJDren gaineko zerga.	92.378.674	133.030.249
a.10) Balio erantsiaren gaineko zerga	990.502.392	1.165.445.741
a.11) Zerga bereziak	459.816.920	462.450.989
a.15) Zerbitzuak emateagatiko tasak	17.254.403	16.995.750
b) Kotizazio sozialak	4.146.952	3.866.761
c) Zerbitzuak ematea.	12.676.493	12.327.805
c.1) Zerbitzuak emateagatiko prezio publikoak	12.676.493	12.327.805
2. Ohiko kudeaketako beste sarrera batzuk	121.065.557	128.045.028
a) Itzultzeak	15.977.027	9.927.227
c) Salmentak eta zerbitzuak ematea.	22.105.664	9.607.719
c) Kudeaketako beste sarrera batzuk	33.865.175	42.313.402
c.1) Sarrera osagarriak eta ohiko kudeaketako beste batzuk	33.865.175	42.313.402
d) Kapitaleko parte-hartzeengatiko diru-sarrerak	10.206.083	11.682.333
f) Beste diru-sarrera finantzario batzuk	38.911.608	54.514.347
f.1) Beste interes batzuk	38.911.608	54.514.347
f.2) Inbertsio finantzarioetako mozkinak	0	0
3. Transferentziak eta dirulaguntzak	176.938.237	127.572.767
a) Transferentzia arruntak	51.057.567	58.698.754
b) Kapital-transferentziak	125.880.670	68.874.013
5. Ezohiko irabazi eta diru-sarrerak	16.959.362	68.785.312
a) Ibilgetutik heldu diren etekinak	1.801.192	2.266.855
c) Jadaneko ekitaldiko ezohiko sarrerak	75.217	3.226
d) Beste ekitaldi batzuetako diru-sarrerak eta etekinak	15.082.953	66.515.231
Saldo zorduna (DESAURREZKIA)	363.788.125	
Hartzekoa, guztira	4.356.251.757	4.329.707.164

VI.5. DIRUZAINZTA-GERAKINA, 2008ko ABENDUAREN 31n.

(en euros)

KOB RATZ EKO DAUD EN ESKUBIDEAK	228.206.778
Diru-sarrer en aurrekontua: ekitaldiko aurrekontua	429.431.182
Diru-bilketa zaileko eskubideak	-198.800.745
Aplikatzekoak diren kontusailengatiko gutxiagotzea	-5.297.098
Diru-sarrer en aurrekontua: itxitako ekitaldiak	13.164.052
Diru-bilketa zaileko eskubideak	-11.284.896
Aurrekontuaz besteko diru-sarrerak	1.210.648
Aurrekontuaz kanpoko eskubideak, biltzen zailak	-216.365
ORDAINTZEKO DAUD EN ORDAINSARIAK	583.806.653
Gastuen aurrekontua: ekitaldiko aurrekontua	522.614.431
Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	23.971.347
Aurrekontuaz besteko gastuak	43.317.677
Epe laburreko obligazioak eta bonoak	-6.096.802
FUNTS LIKIDOAK	483.850.553
Funts likidoak, guztira	483.850.553
DIRUZAINZTAKO GERAKINA, GUZTIRA	128.250.678
Karbono Funtsari atxikitako diruzaintzako gerakina	5.234.414
Toki Ogasunen Funtsari atxikitako diruzaintzako gerakina	16.415.224
2009ko aurrekontuaren aplikazioa finantzatzeko atxikitako diruzaintzako gerakina	6.096.802
ATXIKITAKO DIRUZAINZTAKO GERAKINA	27.746.440
DIRUZAINZTAKO GERAKINA, GASTU OROKORRETARAKO	100.504.238

VII. ERREGULARTASUNARI BURUZKO AUDITORIAREN ONDORIOAK

VII.1 AURREKONTU OROKORRAK ETA NAFARROAKO KONTU OROKORRAK

2008rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrak urtarrilaren 24ko 1/2008 Foru Legearen bitartez onetsi ziren. Diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspenak 4.287 milioi eurokoak izan ziren.

2008an eginiko gastuen aurrekontuetako aldaketek 420,65 milioi euro egin zuten; hain zuzen ere, hasierako kredituen ehuneko 10.

Aldaketak organo eskudunak onetsi zituen, eta aurrekontu-arauetan ezarritako lege-mugak errespetatu ziren.

“Nafarroako komunikazioen ardatz estrategikoak eta lurralde-intereseko beste errepide batzuetako jarduerak azkartzeko planeko” inbertsioak, 2008. ekitaldirako aurreikusitakoa, ez ziren hasierako aurrekontuan sartu; izan ere, 151,33 milioi euroko kreditu-gehikuntzaren bidezko aurrekontualdaketa baten bitartez izapidetu ziren.

Inbertsio horiek zuzenean egin zituen Nafarroako Gobernuak, eta SPRIN enpresa publikoaren bitartez finantzatu ziren, hain zuzen ere Gobernuak aurrez kapital soziala handitzeko eman zion zenbatekoarekin.

2008rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan sartu beharrekoak ziren ekitaldian aurreikusitako obretarako behar ziren kredituak, bai eta haiek finantzatzeko aurrekontuko diru-sarrerara korrelatiboak ere.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen urteko kontuek Ogasun Publikoari buruzko Legean ezarritako kontabilitate-egoerak hartzen dituzte; halere, honako gabeziak ere atzeman ditugu:

- Diru-sarreraren eta gastuen aurrekontuaren likidazio-egoerak ez ditu barnean hartzen ez kreditu-gerakinak, ez eta kitatutako eskubideak ere.

- Oroitidazkian, ez dugu sartu ondasunen inbentarioari buruzko informaziorik.

- Etorrizuneko gastuetarako konpromisoek, 2008ko abenduaren 31n, 810,81 milioi euro egiten dute. Ez dugu horretan finantza-zama sartu.

2008ko abenduaren 31n zeuden hartzekodunek 464,85 milioi euro egiten dute; horietatik, 210,30 milioi euro kobratzen zailtzat jo ziren eta diruzaintzako gerakinetik deskontatu ziren. Kaudimengabeziatarako hornidura 191,25 milioi eurokoa izan zen, hain zuzen ere kobratzen zailtzat jotako

zordunei dagokiena baino 19,05 milioi euro gutxiago.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ez du kontabilitate-plan berekirik onetsi, eta 1994ko maiatzaren 6ko aginduaren bitartez onetsitako kontabilitate publikoko plan orokorra aplikatzen du.

Zordunen eta hartzekodunen kontuei eta ibilgetuaren kontuei dagokienez, ez dira bere zabaltasun guztian aplikatu Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrean ezarritako xedapenak.

Hartara, zordunetan eta hartzekodunetan, ez dira bereizten ekitaldi honetakoak eta itxitako ekitaldiei dagozkienak. Ibilgetuan ez dira azpiegiturak eta erabilera orokorrerako ondasunak sartzen, ez eta ibilgetu ez-materialeko inbertsioak ere; eta ez da amortizaziorik ezartzen balioa gal dezaketen ondasunetarako.

VII.2 AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Aitorturiko eskubideek 4.186,89 milioi euro egin zuten; behin betiko aurreikuspenen % 89 exekutatu zen.

2008ko dirusarrek 2007an baino ehuneko 3 gutxiago izan ziren, batez ere zergen bidezko dirusarrek behera egin zutelako.

Zuzeneko zergek dirusarrerara guztien ehuneko 50 egin zuten; ondotik, zeharkako zergak heldu dira, dirusarrerara guztien ehuneko 37rekin.

Zuzeneko zergek 2.100,72 milioi euro egin zuten, 2007an sortutakoak baino ehuneko 5 gutxiago. Gutxitze hori bereziki zor zaio sozietateen gaineko zergari, zeinak ehuneko 25 egin baitzuen behera. PFEZak zuzeneko zerga guztien ehuneko 66 egiten du, eta ehuneko 6 egin zuen gora 2007ko datuekin alderatuta. Zuzeneko zergei dagokienez, hasierako aurreikuspenen ehuneko 96 exekutatu zen, guztiak ere ehuneko 100etik hurbil dauden portzentajeetan; salbuespena, sozietateen gaineko zerga izan zen, zeinaren ehuneko 80 exekutatu baitzen.

Zeharkako zergek 1.542,7 milioi euro egin zuten, 2007an baino ehuneko 12 gutxiago. Gutxitze hori nagusiki azal daiteke BEZaren gutxitzeagatik, zerga horrek zeharkako zerga guztien ehuneko 64 egiten baitu, eta neurri txikiagoan ondare-eskualdatzeen gaineko zergaren eta egingiza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren gutxitzeagatik.

Aitorturiko betebeharrak 4.402,46 milioi euro egin zuten, 2007an baino ehuneko 2,5 gehiago.

Haien exekuzio mailak behin betiko kredituen ehuneko 93 egin zuen.

Gastuaren osaerari dagokionez, ehuneko 38 transferentzia arruntei dagokie; ehuneko 25, berriz, langile gastuei; ehuneko 15 kapitaleko transferentziak dira; ehuneko 11 ondasun arruntei eta zerbitzuei dagokie, eta, azkenik, ehuneko 7 inbertsioei dagokie.

Gastuak nagusiki osasunaren arloko eginkizuetan eta administrazio publikoentzako transferentzietan egin ziren nagusiki –arlotan bakoitzean ehuneko 21–, ehuneko 14an, berriz, hezkuntzaren arloan, eta ehuneko 7, azkenik, azpiegiturretan.

2008ko ekitaldiko aurrekontu saldoa -215,56 milioi eurokoa izan zen.

VII.3. LANGILERIA GASTUAK

Langileria gastuek 1.107 milioi euro egin zuten; 2007an baino ehuneko 14 gehiago, beraz. Igoera horretatik, ehuneko 6 funtzionarioentzako ordainsarien kapituluak gora egitearen ondorioa izan zen, ordainsarrietan izandako igoerengatik eta langileen berrikuspenengatik. Kontuan hartu behar da, gainera, Hezkuntza eta Osasun departamentuetan lanpostu berriak ere sortu zirela. Ehuneko 4 aldi baterako lan-kontratudunei dagokie, bereziki aipaturiko departamentuetan; ehuneko bat, berriz, osasun arloko langileentzako produktibitate osagarriari dagokio.

2008an lanpostuak -20.632, guztira- honakoei zegozkien:

	Adm. erroa		Hezkuntza		Osasuna		Guztira	
	2008	2007	2008	2007	2008	2007	2008	2007
Estaldurak	4.304	4.275	6.357	5.759	6.374	5.944	17.035	15.978
Hutsak	1.292	1.233	640	772	1.665	1.842	3.597	3.847
Guztira	5.596	5.508	6.997	6.531	8.039	7.786	20.632	19.825

2007ko datuen aldean, 807 lanpostu gehiago zeuden, funtsean bigarren hezkuntzako irakasleen 394 lanpostu, osasunaren arloko langileen 250 lanpostu eta Foruzaingorako 85 lanpostu.

2008ko lan eskaintza publikoa 956 lanpostukoa izan zen (600 hezkuntzaren arloan, 250 osasunaren arloan, 100 Foruzaingoan eta gainerako seiak Administrazio Gunean); horietatik, 952 betetzeko deialdia egin zen.

Lanpostu hutsek, 2008ko abenduaren 31n, lanpostu guztien ehuneko 17 egiten dute; haien % 46 osasunaren arlokoak dira, eta % 36, berriz, administrazio guneak. Gainerakoak hezkuntzaren arlokoak dira.

Honako ordainsari-kontzeptuak berraztertu ditugu:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Guardia medikoak	21.349.564
Bisita pasatzeko guardiak	1.595.056
Dispertsio geografikoarengatik plusa	2.397.630

• Guardia medikoak

Gastuaren ehuneko 23 Bideko Ama Birjina Ospitalean sortu da; ehuneko 22, Nafarroako Ospitalean; ehuneko 20 Iparraldeko oinarritzko osasun eskualdean; ehuneko 17 Tuterako eskualdean eta ehuneko 15 Lizarrako eskualdean.

Ehuneko 57 presentzia fisikoko guardiak dira; ehuneko 33 guardia lokalizatuak; ehuneko 9 opo-

rraldiei dagokie (oporraldietan aurreko urtean guardiengatik kobratutakoaren batez bestekoa) eta ehuneko bat guardiako buruari, ospitale-larrialdietako eta ospitalez kanpoko larrialdietako zerbitzuetan.

Landa eremuko oinarritzko osasun laguntzan, laguntza jarraitua bertan egoteko gardien bidez betetzen da, salbu eta jarduera bereziki ezarri diren bost eskualdetan, non guardia lokalizatuak baitira.

Oro har, ospitaleetan eta oinarrizko osasun laguntzako zentroetan sendagileek eginiko guardiak 2008rako erregelamendu bidez onetsitako tarifen arabera ordaintzen dira (orduak 11,57 euro guardia lokalizatueterako eta guardiako buruentzat, eta 23,15 euro bertan egoteko guardietarako); bestalde, baimenduta eta justifikatuta daude, nahiz eta zenbait ospitaleetan, zerbitzuberu diren sendagileek eginiko guardiak beraiek baimenduta dauden.

Ospitale guztietan ez da berariazko ebazpenik ematen guardien ordainketa onesteko.

Bestalde, oinarrizko osasun laguntzan, sendagileak ez ditu beti errespetatu 2008ko martxoaren 13ko erabakiaren arabera bete beharreko atsedenaldiak.

- Bisita pasatzeko guardiak

Bisita pasatzeko guardiak antolatzen dira O-NOZeko ospitaleetan dauden gaixoei larunbatean, igandean eta jai-egunetan laguntza emateko.

Oro har, plantako pasea edo bisita ospitale bakoitzean zerbitzuetarako onetsitako ordutegien moduluen arabera egin da.

Bisita pasearen ordainketari dagokionez, 2004ko azaroaren 23an, 2004ko bisita paseko orduaren ordainketa 37,96 eurotan finkatu zen, eta ezarri zen kopuru hori urtero finkatuko zela O-NOZeko zuzendari kudeatzailearen ebazpen baten bitartez.

O-NOZeko zuzendari kudeatzailearen 743/2008 Ebazpenaren bitartez, 2008ko martxoaren 13tik aurrerako eraginekin, ezarri zen bisita pasatzeko ordu bakoitzarengatik ekitaldi bakoitzean ospitaleetarako bertan egoteko guardietarako ezartzen diren zenbateko berdinekin ordainduko direla.

Ebazpen horretan ezarritakoa kontraesanean dago bisita paseak ordaintzeri buruz 2004ko azaroaren 23an erabakitakoarekin.

2008an, bisita paseko ordua, ospitale zentro guztietan, bertan egoteko guardia-ordu baterako ezarritako prezioaren bi halako egiten duen zenbatekoarekin ordaindu zen.

Bestalde, Lizarrako García Orcoyen Ospitalean, zerbitzu batzuetan, bisita paseko orduak bertan egoteko orduen guztizkoari gehitzen zaizkio. Alabaina, fakultatibo bera denean bi zerbitzuak ematen dituena, bisita paseko orduak guardiako orduen guztizkotik kendu beharko lirateke ordaintetari begira.

Ganbera honen ekimenez, Lizarrako García Orcoyen Ospitaleak ospitaleko zerbitzu bakoitzean bisita paseengatik bidegabeki ordaindutako lansari guztiak berrikusi zituen, eta jada interesdunek haiek itzultzeko prozedura hasia dauka.

- Barreiatze geografikoko plusa

Oro har, plus hori, zeina oinarrizko osasun laguntzako taldeentzat ezarri baitzen, hura arautzen duten arauetan ezarritako zenbatekoen eta irizpideen arabera ordaindu da, kontuan izanda lanpostu bakoitzaren dispertsio-adierazleak eta profesional bakoitzak bere menpe dauzkan banakako osasun txartelen kopurua.

VII.4 ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZU- AK EROSTEA.

Ondasun arruntengatik eta zerbitzuengatik gastuak 496,78 milioi euro izan ziren: gastuen guztizkoaren ehuneko 11 egiten dute. Ehuneko 23 egin zuten gora 2007an betetakoan aldean. Igoera nagusiki zor zaio kapitulu honetan Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuko zentroen kudeaketa-gastuak sartu izanari; gastu horiek, hain zuzen ere, itunen bidez kudeatzen dira eta aurreko ekitaldietan transferentzia arruntan moduan kontabilizatu dira.

Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako erosketen ehuneko 46 Osasun Departamentuari dagozkie.

Honako gastu hauek berrikusi dira:

	Gastua
Zahar-etxeen kudeaketa	20.119.053
Eskola garraioa	12.689.808
Ikastetxe publikoen funtzionamendua	8.916.674
Informatika zentroaren kudeaketa eta ustiaketa	4.183.056
Eskoletako jantokiak	2.725.342
Zaragozako nazioarteko erakusketa	1.240.762
SAP kontabilitate sistemarako migrazioa	1.240.257
Plasma zatitzeko lanak	499.498
Toki Administrazioari buruzko azterlana	269.961
Calapie ziklismo taldearen babesletza-kontratua	87.000
Azterlan eta lan teknikoak	18.262

Oro har, ondasunen eta zerbitzuen kontratazio administratiboa kontratuei buruzko arauetan ezarritakoaren babesean egin da, eta gastuak baimenduta, justifikatuta eta behar bezala kontabilizatu eta ordainduta daude. Hala eta guztiz ere, honako gabeziak atzeman ditugu:

- Kredituaren erreserba

Kasu guztietan ez da kredituaren aurretiko erreserbarik egin, 15.000 eurotik beherako zenbatekoa egiten duten gastuetarako.

- Ikastetxe publikoen funtzionamendua

Zentroek beren kudeaketari buruzko kontuak ematen dituzte funtzionamendu gastuei eta gastu horiek finantzatzeko jasotako diru-sarrerei buruzko justifikazio-kontua aurkeztuz. Ez da jarraibiderik eman justifikazio kontua prestatzeko, eta ez dira berrikusi zentroek deklaraturako fakturak eta gastuak justifikatzeko gainerako agiriak.

- Eskoletako jantokiak

Ikastetxe guztiek ez dute bidaltzen jantokiaren aurreko ikasturteari buruzko Eskola Kontseiluak onetsitako balantzearen akta.

- Zaragozako nazioarteko erakusketa

Ez da ageri Nafarroako pabilioiaren edukia egiteko deitutako lehiaketa EBAOn iragarri zenik.

Haren saria proiektuaren erredakzioa eta haren exekuzioa esleitzea zen, 600.000 eurotan.

- Enkarguak

Informatika Zentroaren kudeaketa eta ustiaketa PIN SL enpresa publikoari enkargatu zitzaion. Enpresa publikoaren fakturazioarekin batera ez zen egindako lanen gaineko, proiektuan lan egin zuten langileen gaineko eta erabili ziren orduen gaineko txostenik aurkeztu, enkarguaren baldintza teknikoari buruzko orrietan ezarritakoaz bestera. Enkargatutako lanak hasi eta gero onetsi zen enkargua.

Egiaztatu dugu Administrazioak Tracasa eta Nasursa sozietate publikoari lan batzuk enkargatu zizkiela, baina lan horiek ezin izan zituztela egin, behar besteko bitartekorik ez zutelako. Hala eta guztiz ere, sozietate horiek hirugarrenekin kontratatu zituzten egin beharreko lan horiek, eta laguntza teknikoa eman eta lanak koordinatu besterik ez zuten egin. Sozietate publikoek hirugarrenekin lanak kontratatze horrek berekin dakar Administrazioari kontratuaren zenbatekoa fakturatzeko, zenbateko horri gastu orokorren kontzeptuari dagokion ehuneko bat gehituta.

Tracasa enpresari SAP kontabilitate sistemetarako migrazioarako eginiko enkarguak honako kontzeptuen arabera azaltzen dira:

Kontzeptua	2008-07-30ean onetsitako enkargua	2008-08-20an onetsitako enkargua
Langileen kostua	28.864	168.424
Kanpoko kontratazioa	153.965	1.642.521
Guztira	182.829	1.810.945
% 15, gastu orokorrenatik	27.424	271.642
% 3, I+G+I inbertsioarengatik	5.485	54.328
Zerga-oinarria.	215.738	2.136.915
Guztira, BEZa bane	250.257	2.478.822
2008ko gastua	250.257	990.000

Tracasak hirugarrenekin kontratatu zuen 2008ko uztailaren 30ean onetsitako enkarguaren bidez enkargatutako lanen % 84 eta 2008ko abuztuaren 20an onetsitako enkarguaren bidez enkargatutako lanen % 91.

Toki Administrazioaren berrantolaketa administratibo eta funtzionalari buruz Toki Administrazioak

Nasursa enpresa publikoari enkargatu zion azterlan delat eta, Nasursak kanpoko profesionalen talde batekin kontratatu zuen lana, eta enpresa publikoa hura koordinatzeaz arduratu zen. Enkarguaren gastua hurrengo kontzeptu ekonomikoetan xehakutzen da:

Kontzeptua	2008-02-28an onetsitako enkargua	
	Aurreikusia	Fakturatua
Langileen kostua	82.759	90.225
Kanpoko kontratazioa	150.000	142.500
Guztira	232.759	232.725

Nasursaren fakturazioa enkarguan aurreikusitako kostuaren arabera izan bazen ere, kontratatutako lanen adjudikazioan eskainitako baja, 7.500 eurokoa, langileria gastu uste baino handiagoen kargura fakturatu zen.

Enkargua ez zen Kontratazio Atarian argiratu, aplikatzekoa den legedian ezarritakoaz beste.

VII.5 TRANSFERENTZIA ARRUNTENGATIKO GASTUAK ETA KAPITALEKO TRANSFERENTZIENGATIKO GASTUAK

2008an sortutako transferentzia arruntek eta kapitalekoek 1.696,24 milioi euro eta 671,38 milioi euro egiten dute, hurrenez hurren, eta gastuen gutzitakoaren ehuneko 39 eta ehuneko 15 egiten dute. Transferentzia arruntetan 87,58 milioi euroko gastu fiskalak eta 311,65 milioi euroko kapitaleko gastuak biltzen dira.

Hurrengo enteei eman zitzaizkien (euroak, milioitan):

	Transferentzia arruntak	Kapitaleko transferentziak
Egoera	703,99	
Fundazioak	2,52	0,9
Enpresa publikoak	20,24	2,23
Bestelako ente publikoak (Unibertsitatea, Parlamentua)	74,52	12,22
Udalbatzak	245,78	141,20
Enpresa pribatuak	91,32	298,61
Familiak eta partikularrak	346,64	191,68
Irabazi asmorik gabeko erakundeak	211,23	24,53
Guztira	1.696,24	671,37

- Estatuarentzako ekarpena

Estatuaren zama orokorretarako 2008ko behin-behineko ekarpena, 2005eko oinarri-urteko ekarpenetik aurrera ezartzen dena, 703,99 milioi euro egin zuen. Kopuru horri honako kontzeptuak deskontatu zitzaizkion:

	Zenbatekoa
2008ko behin-behineko ekarpena	703,99
Mendetasuneko gutxieneko mailako parte-hartzea	-6,42
2007ko ekarpenaren likidazioa	-2,44
Ekarpenaren zenbateko garbia	695,13

Gainera, 2008an zehar, 311,66 milioi euro ordaindu ziren 2003-2006 urteetako erregularizazioari eta 2007ko behin-behineko ekarpenari dagozkionak.

Kontabilitatearen ikuspuntutik, menpekotasuneko gutxieneko mailako parte-hartzearen eta 2007ko ekarpenaren likidazioaren kontzeptuak Estatuarentzako ekarpenarekin konpentsatzen

ziren, eta gastu garbi moduan kontabilizatzen ziren. Irizpide hori Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren foru agindu baten bitartez aldatu zen, eta gastu gisa kontabilizatu zen behin-behineko ekarpenaren guztizkoa, 703,99 milioi euro alegia, eta diru-sarrera gisa, berriz, adierazitako kontzeptuak.

Honako transferentzia hauek ikuskatu dira:

	Zenbatekoa
Transferentzia arruntak:	
Farmazia-prestazioak	160,87
Ikastetxe itunduak: Haur Hezkuntzako 2. zikloa	17,94
Audenasaren merkataritza-politika	15,91
Udalak finantzatzeko plan berezia	10
Nekazaritza aseguruaren primengatikoko konpentsazioa	6,59
Baluarte Fundazioa	1,2
Kapital transferentziak:	
Inbertsioa eta enplegua	24,23
Ureztalurrak	12,92
Cener-Ciemat Fundazioa	3,3

Transferentzia arruntak: Farmazia-prestazioak-
kastetxe itunduak: Haur hezkuntzako 2. zikloa
Audenasaren merkataritza-politika Udalak finantza-
tzeko plan berezia Nekazaritza aseguruaren primen-
gatikoko konpentsazioa Baluarte Fundazioa
160,87 17,94 15,91 10 6,59 1,2

Kapital transferentziak: Inbertsioa eta enplegua-
Ureztalurrak Cener-Ciemat Fundazioa
24,23 12,92 3,3

Oro har, ikuskatutako transferentziak eta diru-
guntzak baimenduta eta zuzen kontabilizatuta
daude eta haiek ematea, justifikatzea eta ordain-
tzea haiei buruzko arauetan ezarritakoaren arabe-
ra egin ziren.

- Farmazia-prestazioak

Farmaziek eman eta O-NOZi Farmazialarien
Elkargo Ofizialaren bidez fakturatzeko dizkieten
sendagai-gastuak kontrolatzeko prozedurak ezarri-
ta daude eta aplikatzen dira.

Egoitzetako farmazia-prestazioei dagokienez,
ez da beti justifikatzen sartuta ez dauden senda-
gaien finantzaketa; ez da aplikatzen gaixoaren ara-
berako fakturazioa; ez da egiaztatzen egoiliarrek
O-NOZen kargurako prestazio farmazeutikorako
eskubidea daukaten, eta ez da formalki itxi O-
NOZen eta egoitzaren arteko batzorde parekidea,
zeina aurreikusita baitago itundutako baldintzen
jarraipena eta aplikazioa gauzatzeko.

- Ikastetxeekiko ituna

Ikastetxeek justifikatzen dituzte administrazioko
eta zerbitzuetako langileei dagozkien ordainsarien
gastuak, mantentze gastuak eta inbertsioak birjar-
tzeko gastuak Eskola Kontseiluaren gastuak ones-
teko erabakiaren ziurtagiri batekin, itunean ezarri-
takoari jarraituz. Ez dira egiaztatzen ikastetxeek
ziurtatutako datuak.

Ez da kontrolatzen irakasle lanpostu hutsak
betetzeko iragarpen publikoa egiten den eta mere-
zimendu eta gaitasun printzipioei begiratzen zaien.

- Cener-Ciemat Fundaziorako dirulaguntza

Dirulaguntza hori 3,3 milioi eurokoa da, eta
Agoizko ICTS 2. Belaunaldiko Bioerregaien Zentro
Nazionala eraikitze eta ekipatzeko erabili zen.
Zuzenean eman zen.

60.000 eurotik gorako kapitaleko dirulaguntzak
ordaintzeko, nahitaezkoa da organo kudeatzaileak
inbertsioaren materiala egiaztatzea. Egiaztatze
horren orde, aparteko kasuetan, agiri bidezko jus-
tifikazioa egin daiteke, betiere haren bitartez modu
arrazoizkoan eta nahikoan egiaztatzen bada diruz
lagundutako jarduera egiten dela.

Ez dago jasota inbertsioaren egiaztatze materi-
ala egin denik. Agiri bidezko justifikazioa ez da
kasu guztietan nahikoa, ez eta egokia ere (faktu-
ren kopiak aurkezten dira, lursaila ez dago Jabe-
tzaren Erregistroan izen emanda).

VII.6 INBERTSIOAK

Inbertsioek 305,99 milioi euro egin zuten, hain zuzen ere gastuen guztizkoaren ehuneko 7. Haien exekuzio mailak behin betiko kredituen ehuneko 73 egin zuten.

Erabilera orokorrerako inbertsioek, guztira 166,32 milioi euro egiten dutenak, eta 2008an ibil-

getu ez-materialean eginiko inbertsioak, 25,24 milioi euro egiten dutenak, ez dira egoeraren balantzean islatu; horren ordez, ekitaldiaren emaitzari egotzi zaizkio. Inbertsioari ere ez dira egin.

Balioa gal dezaketen ibilgetu materialeko ondarenei ez zaie amortizaziorik aplikatzen.

Honako inbertsioak fiskalizatu dira:

	Gastua, 2008
Lezkairun lursailak erostea	5.475.614
Izaba-Frantzia errepidea	5.590.198
Ogasunaren-Erredentziotarren eraikin berria	2.183.486
Testuliburuaren doakotasun plana	1.750.071
TDT kanalen emisioa zabaltzeari buruzko gehigarria	1.196.313

Orokorrean, aztertutako inbertsioen kontratazioan, kontratazio espedientearen izapidetzea, adjudikazioa eta exekuzioa kontratuei buruzko legeetan ezarritakoaren arabera egin da.

Inbertsio-gastuak, orokorrean, onetsita, justifikatuta eta behar bezala kontabilizatuta daude.

- Izaba-Frantzia errepidea.

Plan hori sartuta dago Nafarroako komunikazioen ardatz estrategikoak eta lurralde-intereseko beste errepide batzuetarako jarduerak azkartzeko planean.

2006ko abenduan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta SPRIN S.A. enpresa publikoaren arteko hitzarmena sinatu zen, plan

hori aurrera eramateko. Hitzarmen horretan aurreikusten zen bi urte eta erdiko epean, 2007tik hasi eta 2009ko ekainera arte, 270 milioi euroko inbertsioak egitea.

Planean sartutako inbertsioen lizitazioa, adjudikazioa eta exekuzioa Nafarroako Gobernuari dagozkio, eta Sprin SA enpresa publikoak finantzatzen ditu.

2008an exekutatuak azkartzeko planeko inbertsioek 109,35 milioi euro egin zuten. Sprinetik jasotako ekarpenekin finantzatu ziren. Izan ere, gobernuak, aurreko ekitaldietan, enpresa publiko horri ekarpenak eginak zizkion kapitala zabaltzeko, ondoko taulan ageri den bezala.

	2006	2007	2008	Guztira
Gobernuak Sprini eginiko ordainketak	120	145	5	270
Sprinek gobernuari eginiko ordainketak		49,91	109,35	159,26

Izaba-Frantzia errepidea 9.359.885 eurotan adjudikatu zen, lizitazio prezioaren ehuneko 18ko bajarekin, eta 2008ko abenduaren 31ra arteko exekuzio-epearekin.

Adjudikazioaren ondoren, proiektu teknikoa aldatu zen, adjudikazio-hartzaileak aurkeztutako proposamen batengatik, proposamen horrek erakuntzarako konponbidean aldaketa bat baitzekarren, ez aurreikusitako kostuan, ez epean eraginik ez zuena.

Ez da ageri zuzendaritza fakultatiboaren txostenik, proiektua aldatzeko beharra baloratzeko, eta hasierako proiektua onetsi zuen organoak aldatu-

tako proiektuaren aurrekonturik eta onespenerik ere ez da ageri.

Lanak 2008ko ekainaren 26an hasi ziren, eta urte bereko abenduaren 15ean eten ziren, bost hilabetez, baldintza meteorologikoen ondorioz. Etearekin dataren aurretik exekutatuak lanak 5.145.119 euroko balioa zuen, hain zuzen ere adjudikazio prezioaren % 55. 2009ko azaroaren 11a ezarri zen obrak bukatzeko data gisa.

Eskualde geografikoa eta urte sasoiaren kontuan izanda, fenomeno meteorologikoak aurrez hartu behar ziren kontuan adjudikatutako lanetarako epea finkatzerakoan; bestela, lana behar zen denbora guztiarekin izapidetu behar zen, aurreikusita-

ko exekuzio-epaia betetzeko. Horri dagokionez, hasierako proiektuan esaten zen lan egiteko zailtasunak hartu behar zirela kontuan, hain zuzen ere azarotik martxora bitartean elurra dela-eta gerta zitezkeen trabei zegokienez.

- Ogasunaren-Erredentziotarren eraikin berria

Obra-proiektu horren enkargua 2004an egin zen, eta ia bi urtez atzeratu zen, nagusiki izapidetu behar izan ziren hirigintza-aldaketan ondorioz. Behin betiko proiektua 2007ko martxoan aurkeztu zen. Lana 2008ko otsailean adjudikatu zen, 5,80 milioi eurotan, eta 6,98 milioi euroko aurrekontuarekin sartu zen 2008ko apirilaren 14an onetsitako 2012 Nafarroa Planean.

- Testuliburuaren finantzaketa

	Ikastetxe publikoak	Ikastetxe pribatuak	Guztira
Onuradunak	10.782	6.381	17.163
Ikastetxeak	206	57	263
Zenbatekoa	1.750.071	1.049.929	2.800.000
Enpresa laguntzailearen kudeaketa			22.921

Ikastetxeek liburuak edo zuenean edo ikasleentzat emandako bonoen bitartez erosi ahalko ditu, edo, bestela, Gobernuak kontratatutako enpresa laguntzaile baten bitartez.

Orokorrean, ikastetxeentzako eta hornitzaileen zako ordainketak (erosketa enpresa laguntzailearen bitartez kudeatzen direnean) baimenduta daude eta onetsitako moduluaren zenbatekoaren arabera eta programaren onuradunak diren ikasle matrikulatuen arabera egiten dira.

Hala eta guztiz ere, ikastetxeek eta enpresa laguntzaileak igorritako liburuetakoa gastuen justifikazioak kontrolatzeko prozedura definitu gabe

Programa honen helburua da testuliburuak doakoak izatea, ikastetxe publiko eta itunduetan, oinarritzko hezkuntzako ikasleentzat.

Programa 2008-2009ko ikasturtean ezarri zen lehen hezkuntzako 3. eta 4. mailatarako eta DBHko 4. mailarako. Aurreikusita dago 2011-2012 ikasturterako oinarritzko hezkuntzako maila guztiak programan sartzea.

Doakotasuna liburuak mailegatzeko sistemaren bitartez gauzatzen da. Liburu horiek 4 urtez erabili-ko dira eta ikastetxeenak izanen dira. Ikastetxe publikoen kasuan, egindako gastua inbertsiontzat jotzen da; ikastetxe itunduetan, berriz, kapitaleko dirulaguntza gisa hartzen dira. Honakoak dira 2008-2009 ikasturtean programa honek ekarri duen gastua eta eta haren onuradunak:

zegoen. Jasotako dokumentazioa artxibatzeke sistema ere definitu gabe zegoen.

- LTDko kanalen emisioa zabaltzeari buruzko gehigarria

Opnatel SA enpresa publikoari enkargatu zitzaion telekomunikazioetako zentroen ekipamendua, lurreko telebista digitalaren estaldura Nafarroan zabaltzeko. Opnatel telebista difusioko zerbitzua ematen du Nafarroako Foru Komunitatean, eta telekomunikazio zentroak dauzka atxikita.

Enkarguaren kostua, aurreikusitakoaren arabera, 6.029.287 eurokoa da, eta honako kontzeptuei dagokie:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Ekipoen instalazioa	4.717.392
Opnatelen laguntza teknikoa	225.700
Honaino, guztira	4.943.092
Gastu orokorrak: % 5,15	254.569
Honaino, guztira	5.197.661
BEZa, % 16	831.626
Guztira	6.029.287

Ekipoen instalazioa –Opatnateki enkargatutako lanaren ehuneko 95—kanpoko enpresa batek egin zuen. Opatnateki bitartekaritza horrek berekin ekarri zuen kanpoko enpresaren lanen ziurtagiriei % 5,15eko portzentajea aplikatzea gastu orokorren kontzeptua dela eta.

Ez dago jasota Opatnateki proiektu tekniko orokorra, difusio zentro bakoitzerako proiektu teknikoak eta zentro bakoitzeko garraio-sarerako proiektu teknikoak aurkeztu dituenik. Dokumentu horiek, izan ere, enkarguaren baldintza teknikoaren orriaren arabera, Gobernuak onetsi beharrekoak dira obrak exekutatu baino lehen.

Ez dago jasota zentro bakoitzean eginiko obraren ez zuinketa-aktarik, ez harrera-aktarik ere, kontrako ezarritako dagoen arren.

VII.7 ZORPETZEA

2008ko urtean, zorpetzearen honako modalitateak hitzartu ziren:

– Zor publikoaren jaulkipena, 60 milioi eurokoa, 10 urteren buruan amortizatu beharrekoa. Jaulkipen horrekin, partzialki amortizatu zen 1998an jaulkitako 60,10 milioi euroko zorra.

– Finantza-entitateekin eginiko lau mailegu, guztira 172,8 milioi euro egiten dutenak, 2008ko defizita finantzatzeko eta 34 milioi euroko finantza-aktiboak erosteko.

Mota	2008/12/31	2007/12/31
Zor publikoa	610,35	610,45
Finantza entitateekin eginiko maileguak	172,8	0
Entitate publikoekin eginiko maileguak	32,36	24,840
Guztira	815,51	635,29

Sozietate publikoen 2008ko abenduaren 31ko zorra 162,87 milioi eurokoa zen.

2008ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorre buruzko 1/2008 Foru Legeak zorpetzeko baimena eman zion gobernari, betiere muga jakin batekin: 2008ko abenduaren 31ko saldo biziak ez gaintzea 2008ko urtarrilaren 1eko saldoa. Muga hori 18/2008 Foru Legearen bitartez balio-gabetu zen. Foru lege horrek 2008ko azaroaren 18an hartu zuen indarra.

2008an, 30,55 milioi euroko interesak ordaindu ziren, ia guztiak aurreko ekitaldietan jaulkitako zorrari zegozkionak.

– Mailegu bat Zientzia eta Berrikuntzako Ministerioarekin, 7,14 milioi eurokoa, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Tuterako Campusa hobetzeko.

– 375.284 euroko mailegua, Ikerketa Biomedikoko Zentrorako. Hezkuntza Ministerioak eman zion Nafarroako Agencia Navarra de Innovación y Tecnología enpresa publikoari. Izan ere, enpresa horrek, Nafarroako Berrikuntzaren Parkearen sustatzailea eta kudeatzailea izan baitzen, proiektuaren ordezkari gisa jardun zuen.

Bi mailegu horiek zero interes tasarekin eman ziren, eta 15 urteko epean amortizatzeko ziren, hiru urteko ezaldia horren barne zirela.

Kontabilitatearen ikuspuntutik, zor publikoaren jaulkipena ez zen diru-sarreraren aurrekontuan islatu; izan ere, 1998an jaulkitako zorraren amortizazioaren gastuarekin konpentsatu zen.

Kontabilizatzeko modu horrek ez du betetzen aurrekontuko gastuak eta diru-sarrerak ez konpentsatzeari buruzko kontabilitate-printzipioa. Ez du betetzen, ezta ere, Ogasun Publikoari buruzko Foru Legea, zeinak ezartzen baitu zorpetze-eragiketen emaitza eta amortizazioa Nafarroako Aurrekontu Orokorretan aplikatuko direla.

Nafarroako Foru Komunitateko 2008ko abenduaren 31ko zor bizia, 815,51 milioi euro, honakoei zegokien:

VII.8 FINANTZA-AKTIBOAK

2008ko finantza-aktiboaren gastua 94,21 milioi eurokoa da, eta nagusiki honakoei dagokie:

– 52,96 milioi akzioak erosteko (14,5 milioi euroko kapital-gehikuntza VINSAn; 38,4 milioi, Sprinen; eta 61.000 euro, Agencia Navarra del Transporte y la Logística enpresa publikoa eratze-ko)

– Canal de Navarra SA enpresari emaniko mailegu parte-hartzaileari dagokion 19,57 milioi euroko zenbatekoa.

– 19,10 milioi, udal montepioa kudeatzeko kontzeptuari dagozkionak.

Sprin SA enpresaren kapital-gehikuntzako gastuak honakoei dagozkie:

– 5 milioiko gastua, aurreko kapital-gehikuntza bateko dibidendu pasiboei dagokiena.

– 14,4 milioi euro Nekazaritza-elikagaien Hiria-ren proiektua finantzatzeko.

– 19 milioi, Los Arcosko abiadura-zirkuituaren proiekturako.

Canal de Navarra SA enpresarentzako maileguari dagokionez, 2008an ordaindutako 19,57 milioi euroko zenbatekoa Nafarroako Gobernuak 2006an eman zuen 105.525.687 euroko mailegu parte-hartzaileari dagokio, hain zuzen ere Ingurumen Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Lankidetzaren Hitzarmenaren arabera

	Parte-hartzea
Circuito Los Arcos SL	% 95 Sprinena
Ciudad Agroalimentaria de Tudela SL	% 100 Sprinena
Echauri Forestal SL	% 100 Nafincorena
Tuckland Footwear SL	% 100 Nafincorena

2008. urtean, 2007an sortutako bi sozietate publikoren –Fondo Jóvenes Empresarios Navarros SAU eta Territorio Roncalia– kontuak sartu ziren kontu orokorrean. Era berean, 2008. urtean sortu-

harpidetu gabe zegoen eta 2003tik 2009ra ordaindu beharrekoa zen kapitala zela-eta.

VIII. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAREN SOZIETATE PUBLIKOAK

2008ko abenduaren 31n, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak partaidetzaren gehiengoa zuen, zuzenean nahiz zeharka, 39 enpresaren kapitalean. Enpresa horietatik lau ez zituen Nafarroako Gobernuak ez sortu, ez deklaratu berriaz publiko gisa. Horrenbestez, haien kontuak ez ziren 2008ko ekitaldiko Nafarroako Kontu Orokorretan sartu.

Honakoak dira lau sozietate horiek:

tako Agencia Navarra del Transporte y la Logística (ANTL) SA enpresa publikoarenak ere sartu ziren.

Honakoak dira hiru sozietate horien datuak, 2008koak:

	Parte-hartzea (%)	Sozietatearen Kapitala.	Emitza	Langileria
ANTL SA	% 100, ACFrena	61.000	-200.718	3
Fondo Jóvenes Empresarios	% 100 Sodenarena	3.006.000	-59.126	0
Territorio Roncalia	% 99 Sprinena	200.000	-207.874	1

2009. urtean, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legea onetsi zen, honako xedearekin: “Nafarroako Foru Komunitateko enpresa-ondare publikoaren zati funtsezko baten (batez ere sozietate publikoak) eraginkortasuna eta eragimena arrazionalizatu, koordinatu eta ahal den onena bilakatzeko testuinguru bat eta tresna bateratu eta berriazkoa sortzea.”

Nafarroako Kontu Orokorretan sartzen diren 35 sozietate publikoen urteko kontuak Kontabilitate Plan Orokor berriari egokitu zaizkio, eta hartan ezarritako kontabilitateko egoera-orriak daukate: balantzea, galeren eta irabazien kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera-orria, eskudiru-fluxuen egoera-orria eta oroitidazkia.

35 sozietate publiko horiek honako datuak erakusten dituzte:

	2008	2007
Ekitaldiko emitza	-96	12
Ondare garbia	708	697
Enplegatuen kopurua	1.143	1.092
Jasotako dirulaguntzak	23,5	27

2008ko emaitza negatiboak nagusiki Sprin enpresa publikoari zor zaizkio, zeren eta ekitaldia 103 milioi euroko emaitza negatiboarekin itxi baitu.

Sozietate publikoek 2008an jaso dituzten dirulaguntzen ehuneko 93 Nafarroako Gobernutik heldu dira.

Urteko kontuen auditoriari dagokionez, iritzia aldekoa da 25 sozietatetan, eta 10 enpresetan, berriz, iritzia ematerakoan salbuespenak aipatzen dira.

IX. GOMENDIOAK

Atal honetan, erregularitasunari buruz 2008an eginiko auditoriaren gomendioak jasotzen dira, bai eta aurreko ekitaldietako fiskalizazioetan emandakoak ere, zeinak ezarri gabe baitaude.

Ezartzea presa handiagokoa dela jotzen dugun gomendioak lehentasunez ebatzi beharko lirateke:

- *Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra bere zabaltasun osoan aplikatzea, bereziki ibilgetuaren eragiketei dagokienez.*

- *Hirugarrenen kontabilitate laguntzailearen (HKL) kontabilitate orokorrarekin koordinatzea. Hirugarrenen Kontabilitate Laguntzailea gaurkotzeko komenigarritasuna eta aukera aztertzea, jatorrizko garapenean jasotako egoera berriak agertzen direnean, bai eta kontsulten sistema modernizatzeak ekar litzakeen abantailak ere.*

- *Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa Sozietatea sortzeari buruzko Foru Legea onestearekin hasitako prozesuan aurrea egitea, enpresen sektore publikoa arrazionalizatzeko, betiere enpresa publikoek zerbitzua ematerakoan efizientzia, ekonomia eta eraginkortasun printzipioak aintzat hartuz.*

- *Enpresa publikoek beste enpresa batzuetan partaidetzaren gehiengoa edukitzeko irizpideak ezartzea.*

- *Foru-funtzionarioen eskubide pasiboen sistematik dakartzan betebeharrak aktuarialak neurtu eta finantzen egoera-orrietan erregistratzea.*

- *Ondasunen inbentarioan haien balorazioa jasotzea, Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrean jasotako irizpideen arabera egina, ibilgetuaren kontuetako kontabilitate-saldoak behar bezala bermatzeko. Bestalde, ganbera honek behin eta berriz nabarmendu duen bezala, prozedura batzuk diseinatu behar dira ibilgetuaren kontabilitate-datuak inbentarioko datuekin berdinkatzeko. Horretarako, ukituriko zerbitzuen arteko koordinazio egokia eman beharko da.*

IX.1. AURREKONTUAK ETA KONTU OROKORRAK

- *Komunikazioen ardatz estrategikoak azkartzeko planean aurreikusitako obrak egiteko behar diren kredituak sartzeari aurrekontuetan.*

- *Aurrekontu programa guztietarako, aurreikusitako helburuak neurtzeko adierazleak definitzea; helburu horiek zenbagarriak eta neurgarriak izan behar dira, eta haien betetze maila eta gerturiko desbideratzeak aztertuko dira.*

- *Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen urteko kontuak osatzea, Ogasun Publikoari buruzko Legean ezarritako kontabilitateko egoera-orri guztiekin, eta haiek aurkeztea Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrean ezarritako egituraren arabera.*

- *Ekitaldiko oroitidazkiari eranstea ekitaldi bakoitzean betetako jarduera hobeki ulertzeko eta hura gardenago egiteko lagungarria den informazio guztia.*

- a) *Foru sektore publikoaren finantza-egoera orokorra erakustea.*

- b) *Urte anitzeko obra publiko handien egoera, bai eta itzaleko bidesariaren modalitatearen pean eginiko inbertsioena ere.*

- c) *Etorkizunerako hitzartutako gastuen artean sartzeari hurrengo ekitaldietarako hartutako konpromiso guztiak; besteak beste, finantza-zama.*

- d) *Ondasunen inbentarioari buruzko informazioa.*

IX.2. KONTABILITATEAREN KUDEAKETA

- *Kontabilitate printzipio publikoak erabili behar dituzten entitateek bete beharreko kontabilitate-arauak ezartzeko kontabilitateko jarraibideak eta kontabilitate agirien eredu eta egiturak, kontabilitateko egoera-orriak eta kontuak onestea.*

- *Finantzaketa atxikia duten gastu guztien kontabilitate-jarraipena eta -kontrola egitea gastu-proiektuen bitartez; kontrol horrek, gastuaren exekuzioa zabaltzen den aldi guzti-guztietan, gastuen eta gastu horiek finantzatzeko diru-sarreraren aurreikuspenak eta exekuzioa jasoko ditu.*

- *Kontabilitate sistema osatzea, zerbitzu publikoen kostua zehazteko informazioa eman dezan.*

IX.3. AURREKONTUETAKO GASTUAK

- *Plantillan sartzeari Hezkuntza Departamentu-ko irakaskuntzaren arloko zuzendaritza postuetarako ezarritako osagarriak.*

- *Bisita pasatzeko guardien ordainsariak erregulatzea, eta kasu guztietan guardiak egin daitezkeen baimentzea.*

- *Jarraibideak ematea ikastetxe publikoek beren funtzionamendu gastuak justifikatzeko aurkeztu behar duten kudeaketa-kontua egiteko, eta ikastetxe publikoek eta pribatuek aitorturiko gastuak berrikustea.*

- *Egoitzetan ematen diren farmazia-prestazioei dagokienez, hitzarmen arautzailean ezarritakoak betetzea.*

- *Funts publikoekin finantzatutako testuliburuak erosteko gastuen ziurtagiriak kontrolatzeko eta artxibatzeko prozedura zehaztu eta ezartzea.*

IX.4. IBILGETUA ETA ONDASUNEN ETA ESKUBIDEEN INBENTARIO OROKORRA

- *Kontabilitate publikoko printzipioak aplikatzea ibilgetu materialeko elementuak erregistratzeko, ondoko alderdiak kontuan hartuz:*

a) *Haiek aitortzeko eta baloratzeko irizpideak, altetarako, bajetarako, gehikuntzetarako eta hobekuntzetarako ere bai.*

b) *Balorazioaren zuzentasunerako arauak, ondasun horien amortizazioak eta gainerako balio-galerak islatzeko.*

c) *Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrean ezarritako kontu berariazkoak erabiltzea, batetik erabilera orokorrari emandako ondasunak eta bestetik ibilgetu ez-materiala nahiz atxikitako eta lagatako ondasunak islatzeko.*

- *Nafarroako Foru Komunitateko ondasunen eta eskubideen inbentario oso bat egitea, eta bertan erabilera orokorrerako inbertsioak, ibilgetu ez-materiala eta finantza-inbertsio iraunkorrak sartzeta.*

IX.5. SOZIESTATE PUBLIKOAK

- *Sozietate publikoei egin ditzaketen lanak esleitzea, eta esleitutako zerbitzuen kostua baloratzea, baldin eta enkargua betetzeko, kasuko sozietate publikoak, neurri handi batean, hirugarrenek prestazioak exekutatzea behar badu.*

- *Nafarroako Kontu Orokorretan sartzeta sozietate publikoen kontuak, Foru Komunitateko Administrazioaren partaidetza, zuzena edo zeharkakoa, kapital sozialaren gehiengo osoa osatzen badu.*

- *Administrazio publiko desberdinek zeharkako partaidetzaren gehiengoa duten enpresen gainean egin beharreko kontrola zehaztea, administrazio horietatik bat ere ez denean kapital sozialaren gehiengoa duena.*

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapide guztiak bete ondoren.

Iruñean, 2010eko otsailaren 25ean.

Lehendakaria, Luis Muñoz Garde

NAFARROAKO GOBERNUKO BIGARREN LEHENDAKARIORE ETA EKONOMIA ETA OGASUN KONTSEILARIAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK.

Comptos Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legeak ezartzen duenarekin bat etorritik eta Nafarroako 2007ko kontu orokorren behin-behineko fiskalizazio-txostena aztertutik, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Comptos Ganberak egindako gomendioei buruzko ondoko alegazioak aurkeztu ditu:

Lehena.- Gomendioen atalean, honakoa egiten da:

Komunikazioen ardatz estrategikoak azkartzeko planean aurreikusitako obrak egiteko behar diren kredituak sartzeta aurrekontuetan.

Gomendio hori 2009rako bete zen, zeren eta Parlamentura igorritako txostenean Azkartzeko Plana finantzatzeko kredituak sartu baitziren.

Bigarrena.- Halaber, honako gomendia egin zen:

Aurrekontu-programa guztietarako, aurreikusitako helburuak neurtzeko adierazleak definitzea.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeak, 127. artikuluko b) letran ezartzen du Kontu Orokorrek honakoa jasoko dutela: "Ekonomia eta Ogasun Departamentuak zehazten dituzten aurrekontu programen emaitzen balantzea eta kudeaketa txostena, kasuan kasuko arduradunak prestatuak".

Agindu horren aplikazioak jada suposatzen du adierazleak definitu beharreko programen tratamendu selektiboa egitea.

Foru agindu bidez, programa horiek zehaztu ziren. Programek, izan ere, aurrekontuko gastu osoaren % 80 baino gehiago egiten dute, eta, funtsean definitu gabe utzi dira, batetik beste programa batzuetarako laguntza-jardueren gastua sustengatzen dutenak, eta bestetik gastu baten hartzaile hutsak diren eta kudeaketarako xede berekiak islatzeko modukoak ez diren programak.

Hirugarrena.- Honakoak ere gomendatzen dira:

Finantzaketa atxikita duten gastu guztien kontabilitate-jarraipena eta -kontrola egitea gastu-proiektuen bitartez.

Ganberak proposatzen duen jarraipena egin ahal izateko kontabilitate-sistemaren utilitatea 2007ko ekitaldian ezarri zen. Orduetik, jarduera batzuk sartzen joan gara, eta haien jarraipena tresna horren bidez egin da.

Laugarrena.- Ganberak gomendioa egin du finantza-zama hitzartutako gastuetan sartzeko:

Etorkizunerako hitzartutako gastuen artean sartzea hurrengo ekitaldietarako hartutako konpromiso guztiak; besteak beste, finantza-zama.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeko 127. artikuluko e) letraren barruan, oroitidazki orokorraren edukia jasotzen da, eta honakoa azaltzen du, , besteak beste: “Geroko ekitaldien kargura harturiko gastu konpromisoen egoera, foru lege honetako 40. artikuluan aipatzen den baimenaren babesean”.

Agindu horren indarrez, Kontu Orokorretan sarturiko urte anitzeko konpromisoen kapituluak foru lege honetako 40. artikuluan jasotako baimenaren babesean hartutako konpromiso guztiak biltzen ditu.

Urte anitzeko gastuen zerrendan ez dira jasotzen finantza-zamatik heldu direnak, zeren eta gastu-konpromisoa ez baita hartu Ogasun Publikoari buruzko Foru Legeko 40. artikuluan jasotakoaren arabera.

Horren ez du esan nahi finantza-zamari buruzko behar adina informazio ematen ez denik.

Horrela, Kontu Orokorretan, “epe luzeko hartze-kodunen” epigrafearen azpian, Nafarroako zor publikoaren ekitaldiaren bukaerako guztizko zorra biltzen da, jaulkipen guztiei buruzko informazio zehatzarekin, bai eta amortizazio datak, interes tasak eta interesengatik ordaindutako zenbatekoak ere.

Iruñean, 2010eko otsailaren 18an

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI COMPTOS GANBERAK EMANIKO ERANTZUNA

Aurkeztutako alegazioak behin-behineko txostenari erantsi zaizkio, eta txostena behin betikotzat jotzen da; izan ere, ohar horiek eginiko fiskalizazio-lanaren azalpentzat hartu dira, eta ez dute txostenaren edukia aldatzen.

Dena den, bigarren eta laugarren alegazioei dagokienez, Comptos Ganberak honakoa zehaztu beharra dauka:

Bigarrena: aurrekontuko programei buruzkoa.

Aurrekontuko programa guztiek, xede bati lotutakoak izan nahiz laguntzakoak izan, helburuak eduki behar dituzte, dagozkien aurrekontu-kredituekin lotutakoak, bai eta ezarritako helburuen bete-tzeari buruzko neurketa egiteko adierazleak ere.

Horri dagokionez, Ogasun Publikoari buruzko Legeak ezartzen du aurrekontuko programa bat osatzen dutela urtean helburu batzuk lortzeko asmoz jarritako baliabideek.

Laugarrena: etorkizuneko gastuen konpromiso-ei buruzkoa.

Ogasun Publikoari buruzko Legeko 40. artikulua ezarri zuen urte anitzeko gastutzat jotzen dela irmoki gastuaren konpromisoa hartu zenaren hurrengo ekitaldian edo ekitaldietan gauzatzen dena.

Horrenbestez, finantza-zama sartu beharra dago, interesak eta amortizazioa barne direla, etorkizuneko ekitaldien kargura hartutako gastu-konpromisoen egoera-orrian.

Iruñean, 2010eko otsailaren 25ean.

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde